

## EZKER ESKUMA

(Euskaraz)

Urriaren 3an,  
barixakua  
22:15ean  
kiroldegian



## MENU DEL DIA

(Gazteleraz)

Urriaren 10ean,  
barixakua  
22:15ean  
kiroldegian



## SOMMER JAUNAREN ISTORIOA

(Euskaraz)

Urriaren 17an,  
barixakua  
22:15ean  
kiroldegian



- II. Udako Argazki Lehiaketako albuma
- Marraskilo Tour mendi ibilaldia iruditan

soraluzeko  
hamabostekaria **184.** alea  
2008ko irailaren 26an

# © pil-pilean



**Ezagutzen ez dena  
ezin da maitatu**

# inaugurazioa

Pil-pileanen egoitza berria

Urriak 3, barixakua

20:30ean

Gila gainean

Musika, pintxoak, brindisa, zozketa...

Gonbidatuta zaudete!!

BAZATOZ??





# GOL

**GOL industriak S.A:**  
Sagar Erreka, 19 45PK  
Telefonoa: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE



## LIMPIEZAS TREJO S.L.

### Garbiketa Industrialak

**Errekalde, 30 behea**

**Telf.: 943 75 25 57**

**Fax: 943 75 25 56**

**20590 SORALUZE**

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

**GURUTZE ARIZNABARRETA****ELENE ALBERDI**

## KONEKTA ZAITEZ, BAINA NEURRIXAN!

**K**aixo polittori! Zelan eta zelan? Inguru honetan pozik! SMS pozgarri bat jaso berri dot: “Gure neskatilatxua jaixo da, pertsianak jaso eta egun on diotsue danori”... hola urdindu da zerua gaur!

Ikaragarria da zelako bizkor zabalitzen diran berrixak oin, bada-kizu, interneta, mobila... Teknologia mailan eboluziño ikaragarria bizitzen gare eta ez dau emoten atzera begiratzeko denborarik be. Aurrera begira bizitzia gustatzen jata eta asmakizun barrixekin beti emozionatzen naiz. JPG, MPGE, MP3, MP4, MSN, SMS, MMS... Ez Elene, ez naiz trabatu abezedarixuakin, ondo ezagutzen dozu eguneroko mundu multimedia hau, ezta? Nere poltsikuan txikle pakete bat egongo zan oin 10 urte eta gaur pen drive batian milaka artxibo, 8.000 abesti, 10.000 irudi. Kajoian, berriz, kamara digitala, mobila, mp4a... Bua, bua! Oin tramankulu guzti hauen erabilpena pixkat kontrolatzia falta jaku. Sarri entzun eta irakurri izan dot hauek sortzen dittuen eremu elektromagnetikuak kaltegarrixak dirala osasunerako. Horregaittik lotara noianian sekula ez dot mobila mesanotxian piztuta lagatzen. Gailuekin disfrutatu egin bihar da, baina neurrixan, bestela geu be baterixarik gabe geldittuko gara egunen batian. Oin kalera noia danak etxian lagata! Beno Elenetxu, bialdu SMS pozgarri bat nahi dozunian, eguna urdindu dein! ☺

### *Teknologia eboluziño ikaragarria bizitzen gabiz*

Gurutze Ariznabarreta

### *Nere lehenengo mobila, adreilu puska bat!*

Elene Alberdi

Ai Gururu maittia, oraindik goguan dakat erosi neban lehendabiziko mobila, duela zortzi urte. Hura zan hura adreilu puska! Ez pentsatu, hasiera batian errezeluak nittuan, ez jatazen mugikorrek gustatzen... orain, ordia, ezin naiz mobil barik bizi; hau da hau kontraesana. Baina pentsatzen dot ez naizela ditxosozko sakelako telefono barik mundu hontan egon ezin dan bakarra, ezta?

Zortziurtian asko aldatu dira gauzak teknologia alorrian. Garai hartan, poltsuak pisu demasa hartzen zeban adreilu zati horrekin, eta, gaur egun, barriz, bakeruetako patriketan sartzeko moduko mobil meheak egiten dittuzte. Iphone izenekua ikusi dozu? Denetarik dauka: ukipen pantaila, wi-fi teknologia Interneten sartzeko, bi megapixe leko argazki kamera eta abar luze bat. Nere laneko bizpahiruk badakate honezkero eta barre egiten doste egun dodan mugikorra ikusita. Adreilu puska izatetik, ogi koskorra eukitzera pasa naiz. Eta gezurra dirudien arren, teknologiaz inguratuta bizi naiz. Internet alorrian egiten dot lan, teknologiaz eta berrikuntzez dakitten “frikiez” inguratuta; horien artian extralurtarra sentitzen naiz batzutan. Baina banabil ikasten, piskanaka...

Ah, portzierto, nik be badaezbada ez dot sekula mobila mesanotxian piztuta lagatzen gabetan. Hori bai, abenduaren hasierako aste horretan, utziko dot bai, zerua urdinduko doskun mezu hori bidaltzeko! ☺

Goguan hartzeko

**Zientziak eta humanitateak bat izan behar dute, ez arrazoa eta sentimendua banatzen dituen horma**

Pablo Serrano, espainiar eskultorea.



**SALBUESPEN  
EGOERARI  
STOP !!**

## GUTUNAK

### EUSKAL HERRIAK AUTODETERMINAZIOA

**P**SOEko gobernuak aspalditik idatzitako gidoia hitzez hitz bete da; Auzitegi gorenak, EAE-ANV eta EHAK legez kanpo utzi ditu. Eta bi ilegalizazio hauei gehitu behar diogu Amnistiaren aldeko mugimenduko 21 kideren aurkako espetxe zigor altuak, 13 pertsonen kartzeleratzea eta talde hauen ilegalizazioa, eta oro har, azken asteetan eman diren tortura kasu lazgarriak, atxiloketa arbitrarioak, bahiketak, manifestazio debekuak eta euskal herritarren aurkako oldarraldi gogorra PNVren poliziaren aldetik, udaletzez udaletxe eta erakundeetan ematen den apartheid. Hitz gutxitan: **SALBUESPEN EGOERA LARRIA BIZI DU EUSKAL HERRIAK, GURE HERRIAN EZ DAGO DEMOKRAZIARIK.**

Hemen ez dira soilik alderdi politikoak edota erakundeak legez kanpo uzten; hemen proiektu politikoa da legez kanpo utzi nahi dena. PSOEk Espainiako kongresuan duen bozeramaleak ezin argiago esan du: ANVk eta EHAKk proiektu politiko ilegalak dituzte. Hau da, PSOEk kosta ahal kosta ezkerreko proiektu independentista da ezabatu nahi duena, hau da, ezker abertzaleak Euskal Herriarentzako duen proiektu politikoa: **INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA.**

Bi proiektu politikoen arteko talka inoiz baino ageriago geratu da: Euskal Herriaren eskubideen aldeko proiektua eta Espainia eta Frantziaren aldekoa. Astebete nahikoa izan da dioguna baieztatzeko: Lehengo astean Auzitegi Konstituzionalak kontsulta legearen inguruan ateratako epaia dugu horren lekuko. Espainia ez den subjektu erabakitzailerik ez dago, (ez marko konstituzional honetan behintzat), eta egun dagoen autonomia ez da subiranotasuna. Eta horren aurka edota hori zalantzan jartzen duen edozein egitasmo politiko edota militanteren ordaina kartzela da, tortura da, ilegalizazioa etab. da. Errepresio basati hau Espainiaren historian konstante bat izan da.

Euskal Herrian aldaketa politikorako aukera zabalik dago eta PSOEk salbuespen egoera basatiena ezarriz, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideen oinarritutako aldaketa politikoa galarazi nahi du, eta horretarako aldaketa horren bultzatzaile, sustatzaile eta motorra den ezker abertzalea txikitu behar du, gaur egungo esparru konstituzional-autonomikoa iraunarazi eta independentziari behin betikoz ate guztiak ixteko.

30 urte daramatzagu proiektu autonomistarekin eta inoiz baino ageriago geratu da ez duela balio izan Euskal Herriko gatazka politikoa gaintzeko. Are gehiago marko konstituzional honen gatazka luzatzeaz gain, frankismoa itzultzea ahalbidetu du, salbuespen egoera ezartzea. Eta hori zergatik? PNV Espainiar proiektuaren gestore hutsa izan delako. Eta Euskal Herriko egoera salbuespeneko izan arren, Urkullu jaunak bere helburua autogobernu gehiago, Estatutu gehiago eta Espainiako aurrekontuak babesteko inolako eragozpenik ez duela.

Egoera larria da, oso larria. Baina honek guztiak zerbait are ageriago uzten badu, zera da: Euskal Herriak iraungo badu, Euskal Herriak etorkizunik izango badu, bere burua libreki garatu ahal izango badu, alternatiba bakarra dagoela: independentzia gauzatuko duen Estatu burujabea eraikitzea. Eta horretarako, ezinbestekoa da Espainia eta Frantziako konstituzioen harresia botatzea eta marko demokratiko bat erdiestea, Euskal Herria nazio gisa aitortuko duena eta euskal herritarrok proiektu politiko guztien artean, independentziarena barne, erabaki ahal izan dezagun ahalbideratuko duena. Hori da gure iparrorratza, eta hori lortu arte lanean eta borrokan jarraituko dugu. Lanean erakundeetan eta udaletan gure herria ezkerretik eraikitzeke helburuarekin.

Bukatzeko, dei egiten dizuegu salbuespen egoera honen aurrean kalera atera eta eraso uholde honi harresia jartzera.

**SORALUZKO EZKER ABERTZALEA**

**Hurrengoan  
Bai**

**T**xurrukengo jaiak antolatzen ditugunok barkamena eskatzen dugu kartelak soilik gazteleraz egin ditugulako. Datorren urterako kontuan izango dugu.

**TXURRUKENGO JAIETAKO  
ANTOLAKUNTZA TALDEA**

**PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO  
HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:**

Elkarteko kontuetarako: [koordinazioa@pilpilean.com](mailto:koordinazioa@pilpilean.com)  
Aldizkariko kontuetarako: [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)  
Publizitate kontuetarako: [publizitatea@pilpilean.com](mailto:publizitatea@pilpilean.com)

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**PIL-PILEAN**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarrea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** [pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net) **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinu eta maketazioa:** Silvio Vaz **Komikixia:** Silvio Vaz  
**Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale  
**I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honen erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Aiora Elizburu

## AMA

**B**i urteko haurrak hasi dira eskolan. Gehienak negarez daude. "Amaaa!" diote. Atea ireki nahi dute gelatik irteteko, eskolatik ihes egiteko; amaxorekin egon nahi dute. Ama lantegira edo erosketak egitera joan da baina ez dago lasai. Urduri dago semea edo alaba "bakarrik" utzi duelako.

Nerabearen ama ere urduri dago. "Umetxoa" Elgoibarrera joan zaio larunbat arratsaldean pasatzera. Nola etorriko da?

Eta nire ama? Urduri ere. Alaba etxetik joan zaio.

Ama beti ama... Baina, zer egingo lukete 2 urteko haur hoiek amaxoren maitasunik gabe? Eta nerabeek amaren errieta gabe? Eta nik?

Amak babestu egiten gaitu; hasi eta hezi. Momentu on zein txarretan hor dago. Gomendioak ematen dizkigu eta milaka gauza irakatsi. Gure eredia da, askotan kasu egiten ez badiogu ere. Bazkari goxoak prestatzen ditu. Praken barrena hartu eta josi. Sekula kentzea lortuko ez zenukeen orbana garbituko dizu!

Amak aurpegiaren igartzen dit ea ondo nagoen eta ahotsean ea zoriontsu naizen.

Eta aita..., ez zaitut ahaztu aitatxo! Baina, ama beti ama! Eskerrik asko amatxo.

## ((ENTZUTEKUAK))

Kontrargi Argazki Kolektiboa  
Biribiltxoren argazki zaharrak ezagutarazten

## Zein zan Biribiltxo?

Biribiltxo bere gaitzizena zan. Berez Anjel Bolunburu zekan izena eta Plaentxian bizi zan. Kañoi fabrikan egiten zekan lan. Bere denbora librian argazkixak etaratzen zittuan herrixan eta afiziño handixa zekan.

## Bere argazkixak batu ditzuzue. Zela hasi zineten lan honetan?

Bere alabiakin berba egin genduan eta bera laguntzeko oso prest agertu zan. Hasiera batian, 40 bat argazki plaka, kristalezkuak, emon zoskuzen. Horrek eskaneatu eta orrixetan inprimitzen hasi ginan. Gero beste danak etorri ziran.



Kontrargiko kide batzuk, Biribiltxoren argazki inguratuta.

*Erakusketa bat prestatzen dihardugu abendurako*

rrak ikusi deizen. Denbora luzez eukiko dogu, astixa emon deizen batak bestiarri jakitzera emoteko eta seguru ikusliak informaziño asko emongo doskuela.

## Zenbat argazki dakazuez?

Guztira 400 bat izango dittugu, 1917tik 1955era bittarte ingurukuak. Iazko irailetik dihardugu argazkixak aukeratu eta dokumentaziño lanakin, bakoitzian azaltzen diran pertsonak identifikatzen. Hau da zailena, argazki batzuk oso zaharrak dira eta jendia ezagutzia gaitza egitten da. Jende nagusiari galdetu bihar azkenian.

## Ze erabilera emongo dotsazue argazkixeri?

Abendurako erakusketa bat prestatzen dihardugu, herritarrak

## Laguntzarik jaso dozue?

Bai. Soralue kooperatibak proiektu guztia finantzatu dau eta Udalak erakusketa hilabete batez martxan izateko baimena emon dosku.

## Zer topatuko dogu erakusketan?

Soraluzetar askoren senitartekuetaz aparte, istorio pilo baten lekuko dira bildu dittugun argazkixak. Oso aberasgarria da ikustia zenbat aldatu dan herrixa eta herriko bizimodua be. Gaur egun existitzen ez diran herriko elementu asko aurkitu doguz bertan. Soraluezko historia narrazten da argazkixen bittartez. ☺

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iurgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**MAPFRE**

**SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.**

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea  
20.590 Soralue (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

# Esperientzia eskolako matrikulazioa zabalik



dira 2008ko urriaren 24tik 2009ko maiatzaren 22ra bitartean, astean hiru egunez. 185 euroko kostua du kursoak baina Kutxak asistentziaren %80a betetzen duenari erdia itzuliko dio.

## Esperientziak partekatzea

Eskola honen helburua gizarte harremanak sustatzea da, 50 urtetik gorakoek

**D**ebegeesak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako proiektua da. 50 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago eta ez da beharrezkoa aurretik titulaziorik izatea. Klaseak Eibarren izango

ere gizarte honetan era aktiboa baten parte hartzeko. Matrikula egiteko azken eguna urriaren 23a da. Informazio gehiago jasotzeko **695 78 89 36** telefonora deitu edo [esperientziaeskola@adindu.com](mailto:esperientziaeskola@adindu.com) helbidera idatzi. ☺

## Energia berriztagarriak landa eremura

Baserritarrek energia berriztagarriak erabil ditzaten, bideragarritasun azterketak doan egiteko aukera izango dute. Nekazaritza edo abeltzantza ustiapena dutenek lehentasuna izango dute. Proiektuaren azalpenarako Udaleko, Debegeasako eta Debemeneko ordezkariak baserri auzoetako herritarrekin batu dira.

## Mesedeetako Amaren eguna



Zaharren egoitzan Mesedeetako Amaren eguna ospatu zuten eguaztenean. Goizeko 11etan meza eta jarraian luntxa egin zuten. Ondoren bazkari berezia dastatu eta Bingora jolasteko parada izan zuten.

## Piboteen ondoan aparkatzeko debekua

Jai egunetan debekatuta egongo da Zubi Nagusiko eta Etxaburuetako piboteen ondoan ibilgailuak aparkatzea. Zaborra biltzen duen kamioiari traba ez egiteko eta larrialdi kasuetan bidea libre uzteko hartu du Udalak neurri hau.



## Zaintza zerbitzua

Goizeko 7:30etatik 9etara eta arratsaldeko 14:30etatik 16:00etara lehen hezkuntzako eskolan zaintza zerbitzua egiten ari dira. 17 ume inguru daude eta Josune Unamuno da beraien arduraduna.



**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgs.es



## MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91  
Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

SORALUZE



# Pil-pilean Euskara Elkarteak egoitza berria dauka

## Irailaren 27an Gudari eguna

Anjel Irazabalbeitia (Txorta), Luis Casares eta Juanjo Urrutia omenduko dituzte zapatuan. Horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte:

### Goizeko

**12:00etan** omenaldia Karakaten **Arratsaldeko**

**18:30ean** lore eskaintza Plaza Berrian **19:30ean** eskualdeko gudariak omentzeko manifestazioa egingo da Eibarren, Gudarien enparantzatik hasita.

### Atentatua gaitzesteko elkarretaratzea

Bakea da bidea lemapean hamarnaka lagun batu ziren asteleheneko atentatua salatzen, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta.

### Ilegalizazioaren aurka manifestazioa

Pasa den barixakuan ANV eta EHAKren ilegalizazioa salatzen hamarnaka herritarrek manifestazioa egin zuten herrian zehar.

### Lurraldebus txartel berria

Lurraldebusak 10 eta 24 urte bitarteko gazteentzat beherapenak eskaintzen dituen txartel berria atara du. Informazio gehiagorako eta txartela egiteko Iratxo goxodendara jo behar da.

**M**aisuen Etxean hamaika **M**urte pasa eta gero, Errabal kalean izango du egoitza berria Pil-pileanek. Uda aurretik leku aldatze lanetan jardun ostean, irail hasieratik bulego berrian daude.

### Urriaren 3an, inaugurazioa

Datorren barixakuan izango da egoitza berriaren inaugurazioa. Ospakizunik ez da faltako; musika, zozketa, brindisa, pintxoak... Nahi duen guztiak bulegoa bisitatzeko aukera izango du. Elkarteak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu jaialdian parte har dezaten, baita bazkideak, publizistak, kolaboratzaileak eta elkarlanean jardun duten kultur eta kirol talde guztietako kideak ere. 20:30ean emango zaio hasiera ekitaldiari.


### Ordutegi eta helbide berriak

Egoitza berriarekin batera, ordutegia finkatu du Pil-pileanek. Astelehenetik barixakura goizeko 10:00etatik 13:30etara irekita egongo da, eta martitzen eta eguenetan, 16:30etatik 20:00etara ere bai. Harremanetarako posta elektronikoa aldatu egin dute; aldizkariko eta plaentxia. comeiko kontuuetarako **aldizkaria@pilpilean.com**, publizitateko kon-

tuetarako **publizitatea@pilpilean.com** eta elkarteiko kontuuetarako **koordinazioa@pilpilean.com**.

### 2008-2011

#### Hitzarmena Udalarekin

Elkarteak eta Soraluzeko Udalak lau urterako hitzarmena berri dute. Euskara eta euskal kulturaren normalkuntzaren bidean Pil-pileanek antolatuko dituen jardueretarako dirulaguntzak zehaztea du helburu. 2008 urterako 30.000 euroko laguntza finkatu dute. 

Egoitza berriaren kanpoaldeko argazki muntaia.



 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**  
Hotzian eta beruan jotako tornilluak  
Errekalde 21  
20590 SORALUZE  
T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**HNOS. BENITO ANAIAK**   
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe  
T. y F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**   
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**argitek**   
ELETRIZITATEA  
David Rascón  
607 486 428  
argitek@hotmail.es  
Instalazio eta erreforma  
elektrikoak etxebizitza eta enpreseetan  
Baltegieta, 17 • 20590 SORALUZE




### Euskararen aldeko gola!

Soraluzeko Futbol Taldean sortu den nesken taldeak argi dauka euskara erabili nahi duela soraluzetarrokin komunikatzeko. Futbolearen emakumeak eta euskarari lekua egitea eskutik doaz Soraluzen.



### Euskararen seinalerik ez

Itxura denez, iragarkia gaztelera hutsez kaleratu duen pertsona hau ez da konturatu Soraluzen marketing eskasekoa dela euskararen seinalerik ez duten parabolikak kolokatzea.



## Zer egin?

Nabigatu euskaldun moduan

“Webgune batera sartzen zara-nian zuk lehenengotik euskerazko bertsia ikustia nahi dozula jakin deixan, nabigatzailian aldaketa-txo bat egin zeink”

Beharbada ez dakizu internetek zu erdaldun moduan hartzen zaituenik. Ba horrela da. Zure nabigatzailearen bertsioa, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez izan arren, nabigatzaileak zure hizkuntza nahiei buruzko informazioa transmititzen du. Hau da, zuk zein hizkuntza nahiago duzun esaten du webgune batera sartzerakoan. Zuk euskara aukeratu nahi baduzu, 2 minutu besterik ez dituzu behar. Azpiko helbidean bilatuko dituzu jarraibideak:

<http://sustatu.com/euskaraz.html>



## DAKIXENARI SEGT

### Erderiak tentaitten naxok

...“Joe chaval, ya te vale. Orduerdi najaok hemen hire zain. La próxima vez te va a esperar tu padre. Siempre igual. Bestiak aspaldi joan dittuk...” Elebitasuna gora eta elebitasuna behera ibilita gero, hau ete da azkenian elebitasun famosuoi?

Ikastolatik pasautako kuadrilla askok hala eitten dau, eta irakasliak eta ileapaintzailliak eta futbolistak eta kaña a Españakuak be bai. Sexu, lanbide eta ideologixen gaiñetik dago, itxuria. Tartian erdaldunen bat dagonian sarri jo izan da

“edukaziñoz” erderara, baiña hau ez da kasua. Danak euskaldunak, eta hala be erdera barik sosegau ezin. Serixo hartzeko kontua da. Kontagiosua da, gaiñera. Me entiendes lo que te quiero decir?

**J.M. Elexpuru**

Goienkaria (344.alea)



Zailtasunak gaintitzen.



Abarkak jantzita behar den moduan.



Iturria: B. Burunza

Abiada handian ibili ziren batzuk.



Iturria: M. Valero

Krabelinaitzeko tontorrean.



Azurtzako horniketa gunean, ilunpetan.



Ibili eta gero, bapo jan.

# 08 Tour

# MARRASKILIO

Argazki gehiago: [plaentxia.com](http://plaentxia.com)

*Ijitook oso bateratuta gaude.*

## “Arrazismoak gure kultura ezagutzea ekiditen die”

Hamar bat urte badira ijito familia honetako lehen kideak Soraluzera etorri zirena. Aurreiritzien gaineratik, askorentzat hain ezezaguna den kultura berezi hau ezagutzera eman nahi izan dugu eta, bide batez, haiei hitza eman.

### Zer da ijitoen kulturen gehien nabarmenduko zenuketena?

Ijitook oso bateratuta gaude payoekin alderatuz. Gure ustez, familia guztia elkarrekin egon behar da eta momentu zailtan elkarri lagundu. Oso alaiak gara eta beti gaude pozik. Momentu bartzuetan, adibidez, dolua betetzen gaudenean, ezin da horrela izan baina gure eguneroko bizimoduan hau da islatzen duguna.

### Familiak garrantzi handia du zuentzat. Zergatik?

Familia elkarrekin mantendu behar da beti eta errespetu asko izan behar zaie etxeko nagusiei. Heziketa oso garrantzitsua da elkarbizitzan eta gu nagusiak miresteko hezten gaituzte. Pertsona nagusiek esaten duten guztia betetzen dugu. Urte askoko bizi esperientzia daukate eta horrek eragin handia du beraiek esaten dutena betetzeko orduan. Oso jakintsuak izaten dira eta horregatik daukate besteen gaineratik agintzeko ahalmena.

### Erljioren bat jarraitzen duzue?

Gure artean, zuen kulturen moduan, Jainkoagan sinesten duten eta ez duten familiak daude. Esate baterako, gutariko batzuk ezkontza zibila egin

genuen eta ijito gehienak ere era zibilean ezkontzen dira, baina askok kristautasunaren bidea jarraitzen dugu.

### Ezkondutik, hitzarmena eta eskusatzeak egiten dituzue?

Norbait gustuko duenak gurasoei esaten die, eta hura besteen gurasoengana joaten da harremana begi onez ikusten duten jakitera. Ezezkia bada, bikote harremanak ez du aurrera egingo. Hala ere, nahiko zaharkituta geratu da hori; gaur egun, gure seme-alabek maitasuna denaren gaineratik ipini eta nahi dutenarekin batzen dira, payoekin ere bai.

### Ezkontzak nolakoak izaten dira?

Emakumeak birjinak izan behar dira; egiaz-tatzeko zapiaren proba egiten zaie. Ezkonberriei arrosa bota beharrean almendrak botatzen dizkiegu. Gero kantuan eta dantzan egiten dugu, zuen antzera, pare bat egunez.

### Dantza eta kantua. Flamenkoa da zuena.

Gure kulturen oso ohikoa da dantzan egitea eta baita abestea ere. Nagusiak ikusita ikasten dute txikienek. Flamenkoa asko gustatzen zaigu, “La Pastori” eta horrelakoak. Camaron

*Esku-  
eskatze-  
rena  
zaharkituta  
dago.*

zaharkituta dago. Flamenkoa ere modernizatzen ari da.

### Orain dolutan zaudete, ordea.

Familiako aitona duela 8 hilabete hil zelako gaudete dolutan. Beltzez janzen gara eta ez dugu ospakizunik egiten; Ez telebistarik, ez irratarik, ez dantzarik, ezta kanturik ere. Argazkietan ere ezin dugu irten. Tristura hori gure etxeetan sartzen da. Doluaren iraupena familiaren arabera da. Gu bi urte inguru egongo gara ezer ospatu gabe.

### Orain dela gutxi arte ijitoen eskolaratzea oso baxua zen. Garrantzia ematen diozue eskolari?

Gure umeak eskolara joaten dira, gainontzekoak bezala, baita institutura ere. Gainera batzuk jangelan geratzen dira bazkaltzen, beraientzategokiena iruditzen zaigulako. Beste umeekin harremana izatea ezinbestekoa da beraien garapenerako.

### Zuetako batzuk Auzolan programan parte hartu duzue. Zer moduzko esperientzia izan da?

Gutariko hiru ibili ginen eta asko ikasi genuen. Aldizkarian ere atera ginen baina hau ez da nahikoa. Lana aurkitzerako orduan norbera mugitu behar da bestela ezinezkoa da zerbait topatzea, gaur egun, bereziki, gauzak nola dauden ikusita.

### Soraluzetarrek zuen kultura ezagutzen dutela uste duzue?

Arrazismoak kultura ezagutzea ekiditen du. Jen-deak kultura ezagutu gabe ijitoak epaitzen ditu eta hori gaizki dagoela iruditzen zaigu. Pertsona normalak gara eta gainontzekoek bezala bizitza normala egiten dugu, baina kultura desberdina daukagunez begiradak, askotan, oso gaiztoak izaten dira. Norberak bere etxean nahi duena egin dezake, baina kalean elkarbizitza bat mantentzeko guztion pentsaerak errespetatu behar dira.

### Seguru beste batzuekin erlazio ona mantentzen duzuela.

Bai, noski. Auzokide payoekin izugarri ondo moldatzen gara. Beraien etxera gonbidatzen gaituzte arratsalde pasa eta bitartean merienda egiten dugu. Auzokoekin, oso ondo, baina gainontzean, arrazista asko dago.

### Zein iritzi duzue delako gizarteratze prozesuaren inguruan?

Nahiz eta kultura desberdina izan, denak pertsonak garen heinean errespetua merezi dugu eta elkarbizitza ona mantentzeko ezinbesteko elementua da. 🐾



## KALO HIZKUNTZA

“Gehienok gazteleraz egiten dugu baina kaloa ere menperatzen dugu eta oso aberatsa da. Gainera, nahiz eta gazteleraz hitz egin, batzuetan zuen kulturako jendeak ez du gure hizkuntza ulertzen; hitz bereziak ditugu. Zuek ere zuen euskalkian bezala.”

**Kaixo:** *Orí*

**Egun on:** *lachós chibeses*

**Zer moduz?:** *¿Quesa ostré mistó?*

**Ondo, eskerrik asko:**

*Mistó, baribustris garapatis.*

**Agur:** *Adebel*

Gaztelania-Kalo hiztegi batetik hartuak

**Auzokide payoekin oso ondo moldatzen gara.**



*Fernando Oregi*  
Sumendiaren haserrea, Bromon.



*Aitziber Mayo*  
Goizeko irribarrea, Banda Achen.

*Mikel Valero*  
Marraskiloa leihoan gora.



*Ione Plata*  
Turkiako janari-postu berezia.



# UDA KO

*Jose Antonio Plata*  
Turkiako laku gazi lasaian.



*Dani Astarloa eta Enara Agire*  
Pirinoetako laku ikusgarrian.



*Sara Pineda*  
Kroaziako ahuntz xebreak.



*Ana Maria Oya*  
Capadocia herri ikusgarria, Turkia.



*Eulogio Mancebo*  
Soraluze Deba ibaian islatua.



*Nerea Bollar*  
Berstegaden Parke Naturaléan.

# argazkiak

*Egoitz Portu eta Marta Aiora*  
Peñíscolan gauetz.



2008




*Maite Lopez*  
Ameriketara joandako euskaldunen etxea.



*Silvio Vaz*  
Urpekaritza egiten, Kuban.

Argazki gehiago: [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)

*Eider Varela*  
Thailandian.



*Ane Larreategi*  
Suitzako paraje eder batean.

# ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Krisixa somatu dozu?

Krisi hitza egunero entzuten da leku guztietan; komunikabideek eta politikoeak ahoz aho darabilte.

### EZOZI UNAMUNO

Dendarixa



**B**ai, igartzen da krisixa daguala. Kalian berba asko egitten da honen inguruan eta danok notatzen dogugure poltsikuetan. Erosteke orduan prezixuak gora egin dabe. Kalian eta tabernetan jende gutxiago ikusten dot nik.

### LUCIA SALINAS

Etxekoandria



**P**rezixuen igoeran bai, igartzen da. Kalian berba asko egitten da honen inguruan, jendia beldurtuta daguala pentsatzen dot. Eguneroko hizketaldixetan presente dagan temia da eta zeozegaittik izango da. Gertu sentitzerakuan igartzen da krisixa.

### ANGELUA MURGOITIO

Tornerua



**H**itz hori asko entzuten da eta kalia b daguala esaten dabe baina nik jendia berdin ikusten dot. Lan postuetan ikusiko da gehixen krisixa daguala, jendia lanik gabe geratzen bada.


### FERNANDO PEÑAFIEL

Langabezian



**B**ai krisi handixa daguala uste dot. Ni neu lanik gabe nago eta gero eta jende gehixago egongo da nere egoera berdinian. Gainera lanik gabe egotiak bizimodua aldatzia ekartzen dau eta hau gero eta gehixago igartzen da kalia.

## KOMIKIXA



*Diseruiua eta Sormena*

Poligono Amillaga, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaleta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



**Kilometroetarako autobusa**

Urriaren 5ean Iruran egingo dute Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaialdia. Pil-pileanek autobusa antolatuta du bertaratu nahi dutenentzat. Izena emateko jarri harremanetan Pil-pileanekin edo, Iratxo goxodendara edo Arrano, Gila edo Gaztelupe tabernetara jo. Autobusa goizeko 9:00etan irtengo da Estaziotik eta iluntzean bueltatuko da.

**Urratseko txikianak Euskal Jaietan**

Dantza Taldekodantzari gazteenak Oñati eta Aretxabaletako Haurren Egunetan izan dira irailean zehar. Gaztañerretarako emanaldia prestatzen hasiko dira orain, barixaku arratsaldetan.

**Jubilatuek Bizkaia aldera txangoa antolatu dute**

Urriaren 2rako irteera antolatu dute Itxaropenan. Goizean Plentzia ikustera joango dira. Ondoren, bazkaria antolatu dute eta honakoa da menua: babak sakramentuekin, txorixoa azalorearekin, legatza piper errekin eta pastela helatuarekin. Prezioa 20 eurokoa da. Arratsalde partean, eguraldiaren arabera Bermeo edo Gernika ikustera joango dira. Irteera goizeko 9:30ean izango da betiko geltokietan eta izena emateko epea irekita dago jada.

# Antzerki zikloak bi antzezlan euskaraz eta bat erdaraz izango ditu

Udalak antolatutako antzerki zikloa urriaren 3tik 17ra arte iraungo du. Barixakuro, ikusgai egongo dira 22:15ean kiroldegian.

**Urriaren 3an "Ezker eskuma"** lana eskainiko dute, Loli Astoreka eta Iñake Irastorzak antzeztua. Bertan bi emakumeen bakardadeak eta adiskidetasunak kontatzen dira, emakumeen eguneroko borrokak plazaratuz.

**Urriaren 10ean "Menu del dia"** antzezlan izango da. Ezkonduta dagoen emakume baten ametsen mundura salto egiteko aukera emango du, eguneroko errutina atzean utziz. Francisco Montsek zuzendua eta gaztelerez eskainiko den obra bakarra.

**Urriaren 17an "Sommer jaunaren istorioa"** ikusteko aukera izango da. Jose Ramon Soroizek antzeztua, haurtzaroko eta nerabezaroko pasarteak bizi-bizi gogora ekartzen dituen pertsonaia-



ren papera egiten du. Melankonia eta umorez beteriko antzezlan da. 🌀

**Txurrukengo jaiak**

Asteburu osoko egitaraua prestatu zuten Txurrukengo jaietako antolatzaileek. Oso jendetsuak izan ziren. Barixaku arratsaldean umeentzat prestatutako jolasak egin ziren.

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**



Ezozi Auzoa 11  
20590 Soraluze  
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA  
TRADIZIONALA



**aras S.A.L.**

DIN arauak jarraituz eta  
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze

## Soraluze Futbol Taldearen aurkezpena



Irailaren 12an, Soraluze Futbol Taldeak bere taldeen aurkezpena egin zuen Ezozikoko futbol zelaian. Orain arte hiru maila desberdinetan lehiatu izan da Sora, kadeteetan, jubeniletan eta erregionalean; azken hauek bigarren mailara jeitsi ziren azken denboraldian. Aurten aldiz, berrikuntza batekin hasi du urtea futbol klubak: nesken taldea osatzea lortu dute eta afizionatu mailan ibiliko dira lehiatzen. 📞

## Mendi taldeak egin du bere lehen irteera



Irailaren 14ean Mendi taldeak lehenengo irteera egin zuen Urbia aldera. Udazkenari begira egun osoko lau irteera antolatu dituzte. Hurrengoa irailaren 28an izango da eta Erniora egingo dute txangoa bertako jaiak direla aprobetxatuz. Hurrengo bietan Erlora eta Soraluzeko mendiak ezagutzera irtengo dira. Izen ematea Iratxo goxodendan egin daiteke edo ikastetxean, **943 75 19 37** telefonora deituta. 📞

### EMAITZAK

#### PILOTA

Leitzako torneoko finala:

Jauregi-Urtasun	22
Renobales-Madariaga	16

San Mateo torneo:

Olaizola II-Patxi Ruiz	20
Mtz de Irujo-Laskurain	22

Olaizola I-Otxandorena

Gonzalez-Laskurain	19
--------------------	----

#### FUTBOLA

Sora 1 – Getariako Keta 2 (Erreg.)	
Aretxabaleta 7- Sora 0 (Jub.)	
Eibartarrak 0 - Sora 3 (Neskak)	
Ikasberri 0 - Sora 1 (Erreg.)	
Sora 0 – Eibartarrak 4 (Jub.)	
Sora 1 – Urki 5 (Kad.)	

### AGENDA

#### FUTBOLA

Zapatua 27, 17:00etan Ezozin  
Sora - Mondragon (Neskak)

Domeka 28, 17:00etan Ezozin  
Sora – Eibartarrak (Erreg.)

Zapatua 27, 12:15ean Mintxetan  
Elgoibar – Sora (Jub.)

Domeka 28, 12:00etan Ipintzan  
Bergara - Sora (Kad.)

**ARRANO**  
taberna  
etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

**Etxabe Harategia**

**Euskal txahalkia Bildotsa**

**Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375**

**GAZTELUPE**  
taberna  
tel: 943 75 20 81

**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN  
Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezozikoko etorbidea 24, 2 Behea



# ARGAZKI ZAHARRA



## SORALUZEKO MENDIZALEAK GALARRAGA-MENDIN IZAN ZIREN 1952KO UZTAILAREN 27AN.

1 - Casimiro Maiztegui, 2-....., 3- Carmen Campos, 4-....., 5- Juan Luis Eguidazu, 6- Serafin Bolunburu, 7-....., 8- Patxi Maiztegui, 9- Jon Izaguirre, 10- ....., 11- Miguel Larrañaga, 12- Anastasio Basauri, 13- Felix Abarrategui, 14- Javier Iraeta, 15-....., 16- Jose Berrueta, 17- Ricardo Torrientes, 19- Oregui, 20- Igone Izaguirre, 21- Gloria Aristi, 22- Maria Jesus Etxaniz, 23- Mari Tere Elozegui, 26- Javier Iraeta (semea), 27- Primitivo Echeverria, 28- Angel Osa, 29- Mikel Berraondo, 30-....., 31- Araceli Arizaga, 32- Mari Carmen Larrañaga, 33- Angel Elizburu, 34- Magdalena Iriondo, 35- Maria Osa, 36- Maria Ines Arrillaga, 37- Ion Aldazabal, 38- Agustin Abarrategui, 39- Juanita Olaizola, 40- Juan Inchaurre, 41- Eugenio Urrestarazu

